

Ideiaren deskribapena

Ikasleei selektibitatea prestatzen laguntzeko balio duen aplikazioa izango da. Aplikazio honi **USEgram** izena jarriko diogu. Bertan gauza eta baliabide desberdinak edukiko dituzte USE proba prestatzen laguntzeko, hala nola: Selektibitatea prestatzeko bideoak, azalpenak, eskemak, teoria euskaraz, azterketak, azterketa ebatziak, trukoak, ordutegia, metodo desberdinak, esperientziak, ikasgai bakoitzeko txata/foroa...

Aplikazioan azterketak prestatzeko material erabilgarria egongo da, eta ikasleek modu praktiko batean ikasi ahal izango dute. Gainera, dinamika desberdinak erabili daitezke eta ikasle bakoitzak bere ikasteko era funtzionalena erabil dezake. USE azterketa prestatzeaz gain, bestelako azterketak prestatzeko eta antolatzen ikasteko balio dezake guk proposatutako produktuak.

